# LAZKAO

| # 14 | 2018 EKAINA |

LAZKAOKO UDALA



# UDA HONETAN GOZATU LAZKAOZ




LAZKAO ERE EUSKARALDI-AREKIN BAT

[ 12-13 ]




GURUTZE ERABERRITZEKO BESTE PAUSO BAT

[ 15 ]

# Gozatu udaz Lazkaon!!





Uda garaia izaten da kanpoan egin daitezkeen ekintzez gozatzeko unerik egokiena. Aisiarako ere tarte gehiago egoten da normalean, eta, beraz, herriko txokoez gozatzeko ere aukera gehiago.
Lazkaon baliabide ugari daude aisiaz gozatzeko, eta kanpoan egin daitezkeen ekintzei tartea egiteko. Estali gabeko igerilekua, parkeak, hainbat jolas gune, kirol ekipamenduak, lasai egoteko terrazak eta eremuak... adin, zaletasun eta nahi ezberdinak dituzten herritarrek badute non gozatua Lazkaon.
Uda garaia iristear da, eta baliabide horiek denak herritarren eskura daude. Udalarekin lankidetzan, herriko elkarteek ere hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetan hasi eta abuztuaren amaiera arte: musika, antzerkia, zinea, bertsolaritza, kirola... ez da non asperturik izango.
Gune eta ekintza horietaz guztietaz herritar denok gozatu ahal izateko baina, ezinbestekoa da arau batzuk jarraitzea eta betetzea, elkarrekin herritar guztion artean elkarbizitza on eta egoki bat eraiki dezagun. Jarraian dauden orrietan, udan aisiara bideratutako eskaintzak, horretarako ditugun baliabideak eta elkarbizitza egoki baterako jarraibideak jasotzen dira.

Aisiarako gune ugari dago Lazkaon

Diferentes lugares de ocio de Lazkao





# ¡Disfruta del verano en Lazkao!!

Una de las mejores épocas del año para disfrutar de las actividades al aire libre suele ser verano. Normalmente suele haber opciones relacionadas con el tiempo libre, por lo que es más habitual también disfrutar de los diferentes rincones que tenemos en el municipio.

En Lazkao contamos con diferentes zonas para disfrutar de nuestro tiempo libre y destinamos más tiempo a las actividades de ocio. La piscina descubierta, los parques, las zonas de ocio y las zonas dedicadas al deporte, terrazas y espacios para relajarse... en Lazkao podemos encontrar nuestro rincón según nuestra edad, aficiones o intereses.

Ahora que estamos a las puertas del verano, todos esos espacios están al alcance de toda la ciudadanía. Asociaciones de Lazkao, conjuntamente con el Ayuntamiento, han organizado diversas actividades comenzando esta misma semana y hasta finales de agosto para disfrutar del tiempo libre en Lazkao: música, teatro, cine, bertsolaris... ¡No habrá razón para aburrirse!

Pero para que todos y todas podamos disfrutar de esos espacios y esas actividades que hemos mencionado, es imprescindible que todos sigamos unas pautas para que la convivencia sea correcta y buena. En las siguientes páginas podrás encontrar información sobre las actividades organizadas para este verano, equipamientos que están a disposición de todos y todas y varias pautas a tener en cuenta para mantener la buena convivencia entre los y las lazkaotarras.



# UDAKO AGENDA LAZKAON

Aurtengo negu eta udaberri euritsu eta iluna atzean utzi, eta udari ongi etorria emango diogu egun batzuk barru. Aisialdirako eta kanpokoan egiteko ekintzetarako tartea areagotuko da aurrerantzean, eta hala, Lazkaoko Udalak eta herriko hainbat eragilek denetariko ekintzak antolatu dituzte, Lazkaotik mugitu gabe udaz gozatzeko. Ekainean, uztailean eta abuztuan Lazkaon antolatu diren hainbat ekintza dira jarraian agertzen direnak.

## AGENDA DE VERANO EN LAZKAO

Después de un invierno oscuro y una primavera lluviosa, en los próximos días le daremos la bienvenida al verano. Con la llegada del verano aumentarán las actividades de exterior y de ocio y tiempo libre, por lo que el Ayuntamiento de Lazkao y asociaciones del municipio han organizado actividades de todo tipo para así disfrutar del verano sin movernos de Lazkao. A continuación, se muestran varias de las actividades que se han organizado para junio, julio y agosto en Lazkao.



### MUSIKA / MÚSICA

Lazkao Txiki Musika Eskolak datorren astean emango du bukatutzat aurtengo ikasturtea. Ohi bezala, diploma banaketaren ekitaldia izango da ikasturtea itxiko duena. Aurrez, baina, bihar, ekainak 15, ostirala, ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute plazan, LazkaOn merkatari elkarteak antolatu duen udako azokarekin bat eginez.

Kantaka abesbatzak ere jarriko du bere aletxoa udako ekintzetan. Ekainaren 22an, ostirala, Azpeitiko Julian Barrenetxea emakumeen abesbatzarekin batera arituko da, Arerian (20:00). Ez da udako kontzertu bakarra izango, Guri5 talde goierritarrak uztailaren 12an egingo baitu kontzertua Lazkaoko plazan (22:00) eta Maddi abeslariak abuztuaren 29an Maizpiden (22:00).

La escuela de música Lazkao Txiki dará por finalizado el curso la semana que viene, con el reparto de diplomas anual. Pero antes, mañana, 15 de junio, el alumnado de la escuela ofrecerá un concierto de fin de curso en la plaza, dentro de la feria que ha organizado la asociación de comerciantes LazkaOn. La coral Kantaka también pondrá su granito de arena. El 22 de junio, viernes, actuará en Areria (20:00) junto a la coral de mujeres Julian Barrenetxea de Azpeitia. El de Kantaka no será el único concierto, ya que el grupo goierritarra Guri5 actuará en Lazkao el 12 de julio (22:00) y la cantante Maddi en Maizpide el 29 de agosto (22:00).



### KULTURA / CULTURA

Dantzari Txiki eguna ospatuko da igandean Lazkaon. Goizean eta arratsaldean ikusi ahalko dira herriko zein inguruko herrietatik Lazkaora iritsiko diren dantzari gazteen emanaldiak.

Kultur arloko ekintzen artean San Juan bezperako eta eguneko ekintzak ere aipatu behar dira. Ekainaren 23an, iluntzean, piztuko da sua eta txistulariek eta dantzariek parte hartuko dute. San Juan egunean, berriz, meza egingo da San Juan Txiki ermitan (11:00) eta ondoren hamaiketakoa.

El Domingo se celebrará en Lazkao el día del Dantzari Txiki. Tanto por la mañana como por la tarde se podrá disfrutar de las actuaciones de los dantzaris locales y de los que lleguen de los pueblos de la comarca.

Dentro de las actividades culturales organizadas para las próximas semanas, hay que resaltar las organizadas en torno al día San Juan. La víspera, al anochecer, se encenderá la hoguera en la plaza, donde actuarán dantzaris y txistularis de la localidad. El día San Juan se celebrará misa (11:00) en la ermita San Juan Txiki, y después habrá almuerzo.



## ZINEA ETA ANTZERKIA / CINE Y TEATRO

Areria aretoan zine denboraldia amaitu berri bada ere, uda honetan zineaz gozatzeko aukera egongo da Lazkaon. Ohi bezala, Udako Zinea egitasmoaren barruan bi emanaldi egongo dira: uztailaren 13an eta 20an. Haurrentzako zein helduentzako emanaldiak egongo dira bi egunetan, 19:30ean eta 22:00etan, Lazkao Txiki plazan.

Antzerkiari dagokionean, berriz, Tartean teatroaren "Ez dok hiru" antzezlana ikusi ahalko da Arerian uztailaren 18an (22:00). Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktore ezagunek "euskal musikaren benetako istorioa" kontatuko dute antzezlan honetan. 200 euskal kanta baina gehiagoren zatiak uztartuta eta "berbaldi motz eta epikoak, azkarrak, eroak" erabiliz.

Aunque la temporada de cine haya finalizado hace poco en Areria, este verano también habrá ocasión de disfrutar del cine. Organizadas por el Ayuntamiento, habrá dos sesiones de cine al aire libre el 13 y el 20 de julio. Ambos días habrá sesiones tanto para jóvenes como para mayores, a las 19:30 y a las 22:00, en la plaza Lazkao Txiki.

En cuanto al teatro se refiere, se podrá ver la obra "Ez dok hiru" del grupo Tartean en Areria el 18 de julio (22:00). Patxo Telleria y Mikel Martinez contarán "la historia real de la música vasca" uniendo párrafos de más de 200 canciones vascas mediante "conversaciones cortas y épicas, rápidas y locas".

## IPUIN KONTAKETA / CUENTACUENTOS

Abuztuan zehar helduentzako bi ipuin kontaketa saio egongo dira Maizpiden. Hilaren 8an, Koldo Amestoy izango da euskaltegian, "Biderditan" saioarekin (22:00). Abuztuaren 22an, berriz, pentsarazteko ipuinak kontatuko ditu Fernando Ambustegik (22:00).

Durante el mes de agosto se podrá disfrutar de dos sesiones de cuentacuentos para adultos en el euskaltegi Maizpide. El día 8 Koldo Amestoy ofrecerá la sesión titulada "Biderditan" (22:00) y el día 22 Fernado Ambustegi contará cuentos para pensar.

## BERTSOLARITZA

Aurtengo udan hiru bertso emanaldirekin gozatu ahalko da Lazkaon. Uztailaren 4an eskualdeko bertsolari gazteek saioa egingo dute plazako pilotalekuan (22:00). Eresti Oiarbidek jarritako gaiei abestu beharko diete Maddi Aiestaranek, Eneko Araiztegik, Ane Belokik, Aratz Igartzabalek, Mikel Tapiak eta German Urteagak.

Uztailaren 26an trikitixa eta bertsoa uztartuta poteoa egingo da herrian zehar (18:30) Maialen Akizu eta Mikel Tapia bertsolariekin eta Iñaki Rezusta eta Aitor Sagarna trikitilariekin. Abuztuaren 16an, berriz, bertso afaria egingo da Maizpiden (22:00) Iban Urdangarin eta Iker Zubeldiarekin.

Durante este verano se podrá disfrutar de tres sesiones de bertsos en Lazkao. El 4 de julio actuarán en el frontón de la plaza (22:00) jóvenes bertsolaris de la comarca: Maddi Aiestaran, Eneko Araiztegi, Ane Beloki, Aratz Igartzabal, Mikel Tapia y German Urteaga. Eresti Oiarbide será la encargada de guiar la sesión.

El 26 de julio se celebrará un trikipoteo (18:30) con los bertsolaris Maialen Akizu y Mikel Tapia y los trikitilaris Iñaki Rezusta y Aitor Sagarna. Por otro lado, el 16 de agosto se hará una cena especial en Maizpide (22:00) con la actuación de los bertsolaris Iban Urdangarin e Iker Zubeldia.

## KIROLA-AISIA / DEPORTE-TIEMPO LIBRE

Ekainean eta uztailean bi mendi irteera antolatu ditu Amalur elkarteak. Lehena ekainaren 24an izango da, Txindokiko Itzala jolas gunera. Bigarrena, berriz, uztailaren 1ean izango da.

Aisiarako tarterik ere egongo da Joxemiel Barandiaran kiroldegiko estali gabeko igerilekuan abuztuaren 4an. Lazkaoko Udalak antolatuta puzgarriak eta jolas bereziak egongo dira.

La asociación de montaña Amalur ha organizado dos salidas para junio y julio. El primero será el 24 de junio, al parque de aventuras Txindokiko Itzala. La segunda salida será el 1 de julio.

Este verano también habrá ocasión de disfrutar de actividades de tiempo libre en la piscina descubierta del polideportivo, ya que el Ayuntamiento de Lazkao ha organizado hinchables y juegos para el 4 de agosto.

## AZOKAK / FERIAS

LazkaOn merkatari elkarteak udako azoka egingo du bihar, ekainak 15, plazan. Elkarteko zein herriko merkatariek euren produktuak kalera aterako dituzte eta bertan parte hartuko dute baita ere Lazkao Txiki Musika Eskolako ikasleek ere, ikasturte amaierako kontzertuarekin.

Uztailaren 5etik 7ra bitartean, berriz, garagardo azoka egingo da Lazkaoko plazan, Gerriko elkarteak eta BERRIA egunkariak antolatuta. Garagardo mota ezberdinak dastatzeko aukera egongo da.

La asociación de comerciantes LazkaOn sacará sus productos a la calle en la feria de verano que ha organizado para mañana, 15 de junio, en la plaza. El alumnado de Lazkao Txiki Musika eskola ofrecerá su concierto de fin de curso durante la feria.

Además, del 5 al 7 de julio se celebrará en Lazkao la feria de la cerveza organizada por la asociación Gerriko y el periódico BERRIA. Se podrán degustas diferentes cervezas.

# #ErabiliEgoki

Gure herriko kaleak, plazak, berdeguneak, edo aisialdira bideratutako gune kulturalak edo kirol eremuak... hau da, espazio publikoa, paseorako, jolaserako, edo aisiarako guneak dira, pertsonen topagunea izaten dira eta, herritarren arteko harreman eta elkarbizitza eremuak.
Gune hauen mantenua, zaharkitutako altzariak aldatzea, margotzea edo konpontzea esaterako, udalaren ardura dira; baina herritar guztion ardura da gune eta elementu horiek egoki erabiltzea eta zaintzea, norberarenak izango balira bezala.
Herriko altzariak, ekipamenduak (zaborrontziak, eserlekuak, zuhaitzak, edukiontziak edo kalean dauden jokoak, adibidez) guztionak dira eta herritar guztien diruarekin ordaintzen dira. Herriak eskaintzen duen beharrezko zerbitzuak dira, eta denon ardura da horiek zaintzea eta errespetatzea.
Horregatik, eta nahiz eta gehiengoak betetzen dituen, ezinbestekoa da oinarrizko arau batzuk errespetatzea:

- Beste bizilagun batzuei molestatu edo eragin diezaieketen jarrerak saihestu, gauean zaratarik ez egin, bizilagunen deskantsua errespetatu...
- Ez puskatu kaleko altzariak; baizik eta zaindu eta errespetatu.
- Ez egin pintadarik edo grafitirik hormetan eta espazio publikoan.
- Animaliak baditugu, kalean kontrolatuta eraman eta gorotzak jaso.
- Beste pertsona batzuek animaliekiko izan dezaketen beldurra errespetatu.
- Ez utzi hondakinik edukiontzien kanpoan.
- Zaborrontziak erabili eta ez utzi zakarrak lurrean.

Sarritan, ordea, arau hauen betetzea zalantzazkoa izaten da.
Arau hauek ez betetzeak, guztiona den diru gehiago gastatzea ekartzeaz gain, askotan, elkarbizitza nahasten baitu.
Arau hauek urte guztian hartu behar dira kontuan, baina uda, eguraldi ona, eguna luzatzea, ikasturte amaiera, oporrak eta aisiarako denbora gehiago izateak elkarbizitzarako arau hauetan arreta gehiago jartzea eskatzen du.

*¡Jarri zure aletxoa denok udaz gozatu dezagun!*

*Espazio publikoak, harreman eta elkarbizitza guneak dira. Horregatik, oinarrizko arau batzuk errespetatzea guztiori datorkigu ondo*

*Los espacios públicos son lugares de encuentro y convivencia. Por ello, respetar unas normas básicas nos beneficia a todos*

Las calles, plazas, jardines, áreas de ocio culturales o deportivas... en definitiva, el espacio público, son sitios de paseo, de encuentro entre personas. Espacios de relación y convivencia para vecinos y vecinas.
El mantenimiento de estos espacios, la reparación o la sustitución del mobiliario urbano degradado, por ejemplo, son labores que le corresponden realizar al Ayuntamiento. Pero es responsabilidad de todos los vecinos y vecinas cuidarlos y conservarlos, cuidarlos como si fuesen de cada uno.
El mobiliario urbano, los equipamientos... (papeleras, bancos, arboles, contenedores, juegos...) que son de todos y se pagan con el dinero de todos, son un servicio básico y muy necesario que debemos cuidar y respetar.
Por ello, y aunque son generalmente asumidas por todos y todas, es fundamental respetar normas básicas tales como:

- Evitar comportamientos que puedan molestar o perjudicar a otros vecinos y vecinas, evitar ruidos nocturnos, respetar el descanso de otras personas...
- No romper el mobiliario urbano, sino cuidarlo y respetarlo.
- No hacer pintadas ni grafitis en paredes y espacios públicos.
- Si tenemos animales, llevarlos controlados en la vía pública y recoger los excrementos.
- Respetar el derecho a tener miedo a algunos animales.
- No dejar basura fuera de los contenedores.
- Utilizar las papeleras y no tirar la basura al suelo.

Su cumplimiento, sin embargo, muchas veces resulta muy dudosa.
El incumplimiento de estas normas básicas de convivencia, además de incrementar notablemente el gasto con cargo al dinero de todos, resulta, en muchos casos, elemento crítico y distorsionador de la propia convivencia.
Estas situaciones son aplicables a todo el año, pero con la llegada del verano, el buen tiempo, el alargar del día, el fin de las clases, las vacaciones y el contar con mayor tiempo libre contribuye a acentuar la necesidad de tener presentes las normas básicas de convivencia.

*¡Haz tu aportación para que todos y todas disfrutemos del verano!*

# Igerilekua

## #ErabiliEgoki

Joxemiel Barandiaran kiroldegiko estali gabeko igerilekuak ekainaren 9tik irekita daude. Igerilekuko ohiko ordutegia 11:00etatik 20:30era izango da. Bihar, ekainak 15, eta ekainaren 18tik 20ra bitartean ordutegi berezian egongo da irekita: 14:30etik 20:30era.
Berdegune zabala eta zuhaitzak ditu Lazkaoko kanpoko igerilekuak. Batzuetan eguzkia hartzeko gogoa izango duzu, eta beste batzuetan itzalean nahiago izango duzu egon. Akaso zuhaitzek ematen duten itzala ez da nahikoa izango. Hala, erabiltzaileek horretara bideratutako eguzkitakoak eta hamakak erabili ahal izango ditu. Iaz, eguzkitako gehienak eta hamaka batzuk puskatu egin ziren, eta udalak berriak erosi behar izan ditu. Erabili dezagun material hau modu egokian, horretara bideratutako araudia jarraituz eta behar direnean erabiliz. Erabili behar ez dituzunean utzi berriz dagokien lekuan.
Igerilekua eremu irekia da, eta erabiltzaile guztiek dute hartaz gozatzeko eskubidea. Hala, igerilekua deskantsurako edo erlaxatzeko gune bezala erabili nahi duenaren hautua ere errespetatu egin behar da. Beraz, kontuz ibili igerilekura salto egiterakoan, edo igerileku inguruan korrika ibiltzerakoan. Gainera, praktika horiek arriskutsuak ere izan daitezke, zuretzat eta ingurukoentzat, min hartzeko aukera egon daiteke eta. Horregatik, kasu egin sorosleak esandakoari eta bete bere aginduak.
Igerilekuko aldagelak ere txukun eta garbi mantendu, eta dutxatzerakoan neurtu uraren erabilera, ingurugiroak eskertuko dizu.

Las piscinas descubiertas del polideportivo Joxemiel Barandiaran están abiertas desde el 9 de junio. El horario habitual será de 11:00 a 20:30, pero tanto mañana, 15 de junio, y del 18 al 20 de junio, el horario será de 14:30 a 20:30.
Las piscinas cuentan con un amplio césped y árboles. A veces querrás sol, y otras veces sombra. Es posible que la sombra natural de los árboles, en algún momento no sea suficiente. Los usuarios tendrán la opción de utilizar las sombrillas y las hamacas habilitadas para ello. El año pasado la mayoría de las sombrillas y también varias hamacas terminaron dañadas, por lo que el Ayuntamiento ha tenido que comprar nuevas. Utilicemos este material de un modo adecuado, siguiendo las instrucciones, haciendo uso de ellas cuando realmente las necesitemos, y procediendo a depositarlas en el lugar habilitado para ello cuando no las necesitemos.
La piscina es un espacio abierto, y todos los usuarios tienen el mismo derecho a disfrutarlo. También hay que respetar a los que quieran utilizar este espacio para descansar o relajarse. Ten cuidado a la hora de saltar al agua o al correr alrededor de la piscina. Estás prácticas, además, pueden ser peligrosas tanto para ti como para los de alrededor, ya que puede haber riesgo de hacerse daño. Por ello, respeta las ordenes del socorrista y obedece sus indicaciones.
Mantén en orden y limpias las duchas y los vestuarios y a la hora de ducharte mide el agua que gastas, el medio ambiente te lo agradecerá.

*Igerilekua eremu irekia da, eta erabiltzaile guztiek dute hartaz gozatzeko eskubidea.*

*La piscina es un espacio abierto, y todos los usuarios tienen el mismo derecho a disfrutarlo.*

## #erabiliegoki



GARBI JOKATU
Pipa, txikle eta halakoak kanpora
JUEGA LIMPIO
Pipas, chicles y demás, fuera



SASKIRATU ZABAORRA
Erabili zakarrontziak
ENCESTA LA BASURA
Utiliza las papeleras



KONTUZ!
Buruarekin pentsatu
¡CUIDADO!
Piensa con la cabeza



URA AURREZTU
AHORRA AGUA



KASU EGIN
Gu laguntzeko dago. Guk ere lagun diezaiogun
OBEDÉCELE
Está para ayudarnos. Ayudémosle nosotros



ONDO ZAINDU
Puskatuta ez dute balio
CUÍDALOS BIEN
Rotos no sirven

# Parkeak

*Herriko parkeak jolasrako eremuak dira, beraz, errespetatu dezagun eremu bakoitzaren funtzioa.*

*Los parques son lugares orientados y reservados al juego, por lo que respeta esa función.*

Eguraldi onarekin batera, ohikoa izaten da herriko parkeetan edo plazan biltzea eta elkartzea. Manten ditzagun gune horiek ere txukun eta garbi, erabiltzaile guztiok gune horietaz gozatu dezagun.
Errespetatu adin bakoitzerako egokituta dauden jolasak, zaindu jolasak eta erabili zakarrontziak goxokien paperak, pipen azalak edo bestelako zakarrak botatzeko.
Esan beharrik ez dago, herriko parkeak jolaserako eremuak direla, beraz, errespetatu dezagun eremu bakoitzaren funtzioa. Gauez, lagunekin, parkean elkartu behar bazara, zaindu jolasak, eta errespetatu bizilagunek atsedenerako duten errespetua: isilik eta zaratarik atera gabe elkartu.
Lagunekin etxe azpiren batean edo beste espazio publiko batean elkartzen bazara ere, berdin jokatu.

Con la llegada del buen tiempo, es muy común reunirse en los parques o las plazas del municipio. Por eso, es importante mantener el orden y la limpieza en dichas zonas, para que todos los usuarios puedan disfrutar de ellas.
Los diferentes juegos de los parques están diseñados para diferentes rangos de edad. Respeta esa división para que cada usuario pueda disfrutar de sus juegos. Pero al margen de eso, es fundamental respetar todos lo juegos y utilizar las papeleras y depositar en ellas los papeles de los caramelos, la cáscara de pipas o resto de basura.
No hay que decir que los parques son lugares orientados y reservados al juego, por lo que respeta esa función. Si vas a reunirte en ellos por la noche con tus amigos, cuida de los juegos y respeta el derecho al descanso que tienen los vecinos de alrededor: no grites ni hagas ruido.
Haz lo mismo, y compórtate del mismo modo en soportales y otros espacios públicos en los que te juntas con tus amigos.

#ErabiliEgoki

## #erabiliegoki



GARBI JOKATU
Pipa, txikle eta halakoak kanpora
JUEGA LIMPIO
Pipas, chicles y demás, fuera



EZ GALDU INDARRA AHOTIK
Zure zaratek bizilagunak molesta ditzakete
NO PIERDAS LA FUERZA POR LA BOCA
Tus gritos pueden molestar al vecindario



ERRESPETUZ JOKATU
JUEGA CON RESPETO



GOZATU PARKEAZ, ZAINDU INGURUA
DISFRUTA DEL PARQUE, MANTÉNLO LIMPIO

*Terrazek espazio publiko bat hartzen dute, beraz, ezinbestekoa da eremu horiek txukun mantentzea.*

*Las terrazan ocupan un espacio público, por lo que es fundamental mantenerlos limpios.*

# Terrazak

Parkeekin gertatzen den bezala, eguraldi onarekin ere sarriagotan jotzen dugu herriko tabernetako terrazak erabiltzera. Elkargune bihurtzen dira, baina, espazio publiko bat ere hartzen dute, eta, beraz, ezinbestekoa da eremu horiek txukun mantentzea.

Pipa azalak, zigarroen soberakinak, goxokien poltsak, pintxoen txotxak... lurrera bota ordez, erabili zakarrontziak, edo mahaietan egoten diren hautsontziak. Tabernariak eskertuko dizue, eta baita gainerako herritarrek ere.

Aurrez esan bezala, gogoan hartu terrazan eserita zauden bitartean, beste bizilagun batzuek ere badutela deskantsurako eskubidea. Beraz, ez-orduetan saiatu isilik ibiltzen eta bizilagunen loa errespetatzen.

Saihestu mahaiak eta aulkiak jarrita dauden eremutik mugitzen, terraza bera dagokion eremutik atera gabe. Atarietara sarrerak oztopatzen edo zailtzen dira askotan, edo kalean oinez doazen pertsonen joan-etorriak. Terraza ordenatu bat izatea ez da soilik tabernako jabearen ardura.

Al igual que ocurre con los parques, con la llegada del buen tiempo el uso que se hace de las terrazas aumenta. Se convierten en un punto de encuentro, pero también ocupan un espacio público, por lo que es fundamental mantenerlos limpios.

No tires al suelo las cáscaras de las pipas, los sobrantes de los cigarros, los envoltorios de las gominolas, los palillos de los pinchos... utiliza las papeleras o los ceniceros de las mesas. Los y las hosteleras te lo agradecerán y también el resto de ciudadanos.

Tal y como lo hemos mencionado anteriormente, recuerda que mientras estás sentado en la terraza, los vecinos tienen derecho a descansar. Por lo tanto, procura no hacer ruido y respetar el sueño de los vecinos.

Evita también mover o desplazar las mesas, de modo que la terraza se desplace de su ubicación. Muchas veces se ocupan espacios que impiden o molestan el acceso a los portales, o simplemente el tránsito de personas que pasea por la calle. El mantener una terraza ordenada, no es solo responsabilidad del dueño del bar.

#ErabiliEgoki

## #erabiliegoki



GARBI JOKATU
Pipa, txikle eta halakoak kanpora
JUEGA LIMPIO
Pipas, chicles y demás, fuera



EZ GALDU INDARRA AHOTIK
Zure zaratek bizilagunak molesta ditzakete
NO PIERDAS LA FUERZA POR LA BOCA
Tus gritos pueden molestar al vecindario



ORDU TXIKIAK, MOLESTI HANDIAK
Ordutegia errespetatu
DE NOCHE LAS MOLESTIAS SE MULTIPLICAN
Respeta los horarios



NON NAGOEN JAKITEAK GARRANTZIA DU
Errespetatu terraza eremua
ES IMPORTANTE SABER DÓNDE SE ESTÁ
Respeta la zona de terraza

# #ErabiliEgoki

## Bidegorriak

*Bidegorriak bizikletentzako eremuak dira. Beraz, oinezkoek espaloitik joan behar dute, eta bizikletak bidegorritik.*

*El uso del bidegorri está destinado a las bicicletas, por lo que los viandantes deben circular por la acera y las bicicletas por el bidegorri.*

Uda garaia iritsitakoan, gero eta herritar gehiago zarete autoa etxean utzi eta herrian zehar egin beharreko joan-etorriak bizikletan egiten dituzuenak. Herriko bidegorri sareak gune batetik bestera bizikletan joateko aukera ematen du, baina badira hainbat arau bizikleta gainean ere errespetatu behar direnak.
Gogoratu derrigorrezkoa dela kaskoa jantzita eramatea, eta zure segurtasuna zein gainerako herritarrena bermatzeko errespetatu bidegorrirako zehaztutako abiadura.
Bidegorriak bizikletentzako eremuak direla ere kontuan hartu. Beraz, oinezkoek espaloitik joan behar dute, eta bizikletak bidegorritik. Bakoitzak bere eremua errespetatuta, hainbat istripu saihestu ahal izango ditugu.
Herrian zehar hainbat gunetan bizikletak uzteko gune zehatzak dituzu eskura. Erabili gune horiek zure bizikleta uzteko, kalean edozein farolatara edo gunetara lotuta utzi beharrean.

La red de bidegorri de Lazkao está diseñada para circular por todo el municipio y cada vez sois más los vecinos que optáis por utilizar la bicicleta para moveros de un sitio a otro dentro del municipio. Pero, no hay que olvidar que es imprescindible respetar unas reglas ligadas al uso de la bicicleta.
Recordad que es obligatorio llevar el casco puesto. Respetar el máximo de velocidad marcado para el bidegorri garantizará tu seguridad y del resto de vecinos.
El uso del bidegorri está destinado a las bicicletas, por lo que los viandantes deben circular por la acera y las bicicletas por el bidegorri. Si cada uno respeta su zona, evitaremos que se produzcan accidentes.
En Lazkao hay varias zonas destinadas al aparcamiento de bicicletas, por lo que se pide que se utilicen esas zonas en vez de candar las bicis a las farolas u otros elementos de la vía pública.

### #erabiliegoki



BURUGORKERIAK EZ DU KOLPEA ARINTZEN
Erabili kaskoa
LA CABEZONERÍA NO EVITA EL GOLPE
Utiliza el casco




IZAN AZKARRA
Abiadura zaindu
ADELÁNTATE
Controla la velocidad



ERRESPETUZ JOKATU
JUEGA CON RESPETO



EGIN ZURE BIDEA
Errespetatu zure eremua
HAZ TU CAMINO
Respeta tu zona



APARKATU BIZIKLETAK
APARCA LA BICICLETA

#ErabiliEgoki

# Txakurrak

Kalean, lorategietan, parkeetan edo herriko beste txoko batzuetan txakurrak solte eramateko duten eskubide legitimoa dutela uste duten nagusien eta txakurrei beldurra dieten pertsonen eskubideak uztartzea zaila egiten da askotan. Beldurra duten pertsonek herriko txoko horietan lasai ibili ahal izateko neurriak eskatzen dituzte, eta txakurren jabeek animaliak lotuta eraman beharrik ez dagoela adierazten dute. Arazo honen adibideetako bat Dukearen parkean gertatzen dena izan daiteke. Txakurrei dieten beldurra dela-eta, ume asko errepidetik igotzen dira futbol zelaira, horrek dakarren arriskuarekin. Ez dugu uste irtenbiderik onena arauak betetzen ez dituen jabe bakoitzaren atzean udaltzain bat jartzea denik. Kalean oinezkoek txakurren kaka zapaldutakoan hartzen dituzten haserreak ere ez dira gutxiagorako. Beraz, txakurra baduzu, kalean kaka egindakoan jaso kaka. Herriko hainbat gunetan eskura izango dituzu txakurren kaka uzteko edukiontziak, eta poltsak, berriz, udaletxean eskuratu ahal izango dituzu.

A menudo resulta difícil aunar la visión de personas que consideran legítima la posibilidad de que los perros puedan andar sueltos por cualquier calle, jardín, equipamiento, o parque, con el de aquellas otras personas, mayores, jóvenes o niños, que piden que se respete su miedo al perro, y reclaman medidas para que puedan pasear o jugar sin que sus movimientos estén limitados por ese miedo a encontrarse con un perro incontrolado. Un ejemplo claramente visual de este problema es el que puede producirse en el parque del Duque. Debido al miedo que tienen hacia los perros, muchos de los niños y las niñas que acuden al campo de fútbol lo hacen por la carretera, con el riesgo que ello conlleva. No creemos que la solución pase por poner un policía municipal detrás de cada uno de los dueños que hacen caso omiso a las indicaciones. No menos común resulta el cabreo de quien tras "un mal paso" pisa algún resto de caca de perro y hace lo imposible para dejar atrás esos olores que le persiguen. Si tienes perro, es tu responsabilidad recoger la caca. En varios puntos del municipio hay contenedores para depositar los restos recogidos. Además, podrás obtener las bolsas en el ayuntamiento.

## #erabiliegoki



BERE BEHARRA, ZURE ARDURA
Jaso zure txakurraren kaka

SU NECESIDAD, TU DEBER
Recoge la caca de tu perro



GIZAKIEN ERRESERBA NATURALA
RESERVA NATURAL HUMANA



TXAKURRA ASKATZEKO,
hartara egokitutako gunea

PARA SOLTAR AL PERRO
utiliza el recinto habilitado



EREMU PUBLIKOETAN BETI LOTUTA ERAMAN
EN LUGARES PÚBLICOS, SIEMPRE ATADO



ERRESPETUZ JOKATU
JUEGA CON RESPETO



POLTSAK UDALETXEAN ESKURA DITZAKEZU
PUEDES OBTENER LAS BOLSAS EN EL AYUNTAMIENTO

Kontuan izan beti, etxean txakur bat edukitzea ardura handiko kontua dela. Gaur egun udalek ez dute txakurren zentsu propiorik. Eusko Jaurlaritzak egiten du, albaitariek emandako datuekin. Baina garrantzitsua da jabeek ere informazio horren berri ematea: jaiotzak, heriotzak, jabe aldaketa...
Garrantzitsua da baita ere txakur guztiak txip bidez identifikatzea. Txipa albaitariek jartzen dute, txakurraren NAN antzeko bat da, eta txakurra galduko balitz animalia identifikatzeko balio du. Eusko Jaurlaritzak dituen datuen arabera, gaur egun Lazkaoko zentsuan 600 txakur inguru egon daitezke. Urtero, batez beste, 10 edo 15 txakur galtzen dira herrian. Batez ere udan eta ehiza garaian galtzen dira txakur gehienak. Kasuen erdietan, gutxi gorabehera, jabearekin kontaktuan jartzea lortzen da. Gainerako kasuetan animalia Gipuzkoako babeslekura eramaten da, beste jabe bat biltzeko. Horrek 330 euroko gastua dakarkio udalari, txakur bakoitzeko. Gogoratu txakurra edukitzea ez dela kapritxo bat, baizik eta ardura bat.

Ten siempre presente que tener un perro en casa supone una responsabilidad. A día de hoy los ayuntamientos no contamos con un censo propio de perros. Lo elabora el Gobierno Vasco partiendo de los datos que les facilitan los veterinarios. Es importante que los propios dueños también transmitan esta información: nacimientos, fallecimientos, cambio de dueños...También es importante saber que todos los perros deben estar identificados con un chip. Este chip lo implantan los veterinarios, y es el DNI del perro o perra, y sirve para identificar al perro en casos de perdida... Según una lectura aproximada de los datos del Gobierno Vasco, en estos momentos puede haber censados en Lazkao unos 600 perros. Todos los años se dan en el municipio unos 10 o 15 casos de perros extraviados. Sobre todo, esto se suele dar en verano y en épocas de caza. Más o menos en la mitad de los casos suele ser posible dar con el dueño. En el resto de casos, se lleva el animal a la protectora de animales de Gipuzkoa, y desde allí les buscan un nuevo dueño. Esto supone para el ayuntamiento un coste de unos 330 euros por cada caso. No olvides que un perro no es un capricho, supone una responsabilidad.

# EUSKA
# LAZKAON

Euskal Herriko hainbat euskaltzale elkartek urteetan zehar landu duten "Euskarak 365 egun" lan ildoaren baitan kokatzen den egitasmoa da Euskaraldia, eta herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu.

Bi xede ditu: Euskal hiztunen ohituretan eraginez beren harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea; eta hizkuntzaren normalizazioan eragiteko eta euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko mota guztietako entitateak neurriak hartzera bultzatzea.

Azken finean, euskaraz hitz egiten dakitenek edo euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek egunerokotasunean eta ahal den guztietan euskara erabili dezaten lortzea lortu nahi du Euskaraldia egitasmoak.

## Noiz egingo da?

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Irailean zabalduko da Euskaraldian parte hartzeko izen ematea.

## Nork parte hartu ahalko du?

Euskaraz dakien edo ulertzen duen 16 urtetik gorako edonork.

## Nola eragin nahi da? Nola parte hartu daiteke?

"Ahobizi" eta "Belarriprest" figuren bidez. "Ahobiziek" euskarari eutsi beharko diote pareko hiztunak ulertzen dion guztietan, eta "Belarriprestek" parekoari euskaraz egiten utzi beharko dio. Bi figurak izango dira garrantzitsuak. Euskaraz ongi dakitenek "Ahobizi" figura hartuko dute, eta euskara ulertu edo hobetu nahi dutenek "Belarriprest" figura.

## AHOBIZI

- Euskaraz egingo diete ulertzen duten guztiei edonon eta edonoiz.
- Ezagutzen ez dutenekin lehen hitza euskaraz egingo dute, eta ulertzen badute, hortik aurrerakoa dena euskaraz.
- Jarrera aktiboa izan beharko dute. Haien harreman sarean dauden hizkuntza praktikak aztertu eta euskarara aldatzeko aukera dagoenean euskarara aldatu.
- Euskaraldiak irauten duen bitartean, bizitzako esparru guztietan euskaraz aritu beharko dira, ahal den guztietan eta ahal den guztiekin.

- Hablarán en euskara con todas aquellas personas que entiendan el idioma, donde sea y cuando sea.
- A la hora de entablar una conversación con personas que no conozcan, la primera palabra será en euskara. Si entienden el idioma, toda la conversación se llevará a cabo en euskara.
- Deberán tener una actitud activa. Deberán analizar las practicas lingüísticas de su entorno y utilizar el euskara en todos los casos que sea posible.
- Mientras dure Euskaraldia, deberán hablar en euskara en todos los ámbitos de la vida, en todas las ocasiones que sea posible y con todas las personas que puedan.

# ALDIA

Euskaraldia es una iniciativa creada en torno a la dinámica de trabajo “Euskarak 365 egun” impulsada por diferentes colectivos y asociaciones del País Vasco que trabajan a favor del euskara. El objetivo de esta iniciativa es cambiar las costumbres lingüísticas activando la población vascoparlante.

Tiene dos objetivos: impulsar el uso del euskara entre las redes de trato influyendo en las costumbres de los vascoparlantes; y empujar a las organizaciones e instituciones en la toma de decisiones que favorezcan la normalización lingüística y promuevan y amparen el uso del euskara.

Al fin y al cabo, Euskaraldia tiene como objetivo transformar las inercias lingüísticas en las que se cae en el día a día y probar que es posible comunicarse en euskera en más situaciones de las que se imagina.

## ¿Cuándo se llevará a cabo?

Del 23 de noviembre al 3 de diciembre de 2018. El plazo de inscripción para participar en esta iniciativa comenzará en septiembre.

## ¿Quién puede participar?

Todas las personas mayores de 16 años que sepan o entiendan euskara.

## ¿Cómo se pretende influir? ¿Cómo participar?

Mediante las figuras “Ahobizi” y “Belarriprest”. Las figuras “Ahobizi” tendrán que hablar en euskara en todos los casos en las que la persona que tiene en frente le entienda en euskara. Las figuras “Belarriprest” deberán facilitar a las personas de su entorno a comunicarse con ellas en euskara. Las dos figuras son importantes. Las personas que dominen el euskara tomarán la figura de “Ahobizi” y las personas que entienden el idioma tomarán la figura “Belarriprest”.

## BELARRIPREST

- Euskaraz dakiten guztiei beraiekin euskaraz egiteko gonbitea egingo diete. Euskara ulertzen dutela adieraziko diete eta beraiekin euskaraz egin dezatela eskatuko diete "Ahobiziei".
- Euskaraz edo erdaraz erantzungo dieten arren, beraiei euskaraz egiteko eskatuko diete.
- Jarrera aktiboa izan beharko dute, elkarrizketak euskaraz egin daitezen bultzatzeko.
- Beraien funtzioa oso garrantzitsua izango da, euskarazko elkarrizketak sortzen lagunduko dutelako.

- Invitarán a todas las personas que saben euskara a entablar conversación en euskara. Manifestarán que entienden el euskara y pedirán a las figuras “Ahobizi” que hablen con ellos en euskara.
- Aunque su respuesta sea en euskara o en castellano, pedirán que se dirijan a ellos en euskara.
- Deberán tener una actitud activa para impulsar el uso del euskara.
- La función de estas figuras será muy importante, ya que ayudarán a impulsar las conversaciones en euskara.

# LABURRAK




## "TRANS-FORMATZEN" DOKUMENTALAREN EMANALDIA

Lazkaoko Udalak eta San Benito Ikastolak antolatuta, "Trans-formatzen" dokumentala ikusi ahalko da ekainaren 27an, 19:00etan, Arerian. Ekaitz Goikoetxea, Aitor Lana eta Garazi Zabaleta dira dokumentalaren egileek azaldu dutenez, "transexualitatearen inguruko zalantzak eta iluntasunak argitzen ditu dokumentalak, testigantzen eta informazio bilketaren bidez". Dokumentalak egoera ezberdinak ezagutzeko aukera luzatu nahi du, eta gogoetarako euskarri bat eskaini. Gaur, ekainak 14, San Benito Ikastolako ikasleek ikusiko dute dokumentala. Emanaldia LGTB kolektiboaren nazioarteko egunaren harira antolatu da.

## PROYECCIÓN DEL DOCUMENTAL "TRANS-FORMATZEN".

Organizado por el Ayuntamiento de Lazkao y San Benito Ikastola, se proyectará el documental "Trans-formatzen" el día 27 de junio, a las 19:00, en Areria. El documental está realizado por Ekaitz Goikoetxea, Aitor Lana y Garazi Zabaleta, y según han señalado, "el documental aclara las dudas y las sombras en torno a la transexualidad, mediante testimonios e información". El documental pretende dar a conocer diferentes realidades, y ofrecer un espacio para la reflexión. Hoy, 14 de junio, se proyectará el documental para el alumnado de San Benito Ikastola. La proyección se ha organizado en torno al día internacional del colectivo LGTB.



## UDAKO AISIA ETA KIROL KANPAINAK

Udako aisia eta kirol kanpainak antolatu ditu aurten ere Lazkaoko Udalak. Aisia denboraldia ekainaren 25etik uztailaren 27ra izango da, bi ordutegi ezberdinetan (bakoitzak egin duen aukeraketaren arabera): 09:00etatik 13:00etara edo 10:00etatik 13:00etara. Aisialdi zerbitzuan parte hartzen duten umeek jolas giroan, hainbat jarduera, tailer eta ekintza egingo dituzte. Kirol kanpaina ere ekainaren 25ean hasiko da, eta uztailaren 20an amaituko da. HHtik batxilergora arteko ikasleei zuzenduta dago, eta guztira 19 ikastarotan parte hartzeko aukera izango dute.

## CAMPAÑAS DE TIEMPO LIBRE Y DEPORTE

El Ayuntamiento de Lazkao ha organizado un año más las campañas de tiempo libre y deporte. La campaña de tiempo libre comenzará el 25 de junio y finalizará el 27 de julio. Tendrá dos horarios (según la opción elegida en la inscripción): de 09:00 a 13:00 o de 10:00 a 13:00. Los niños y niñas que participen en la campaña de tiempo libre realizarán juegos, talleres y actividades en un entorno lúdico. La campaña de deporte comenzará el 25 de junio y finalizará el 20 de julio, y estará dirigido a alumnos de EI hasta bachiller. En total, podrán participar en 19 cursillos.



## UHAITZ KALEKO LANAK

Batetik San Inazioko zubitik oinezko zubiraino zorua berritzeko kalea asfaltatu da. Lan hauek aprobetxatuz, aparkalekuetan kotxea uzterakoan zegoen malda arintzeko ahalegina ere egin da. Lanek 27.931 euroko kostua izan dute. Bestetik oinezko zubitik plazaraino, aurrez zegoen zorua berritu, eta orain arte bidea eta azera maila ezberdinetan zeuden tartean maila hori berdindu eta oinezko gunearen trataera eman zaio. Kostua 26.553 eurokoa izan da.

## OBRAS EN LA CALLE UHAITZ

Por una parte se ha reasfaltado el vial entre el puente de San Inazio y el puente peatonal. En este caso se ha aprovechado para aminorar la pendiente existente y que dificultaba los aparcamientos. Estos trabajos han costado 27.931 euros. Por otro lado, desde el puente peatonal hasta la plaza se ha renovado el hormigón impreso existente, y en el tramo que la acera y el vial estaban a distinto nivel se ha eliminado el salto y se le ha tratado de dar un aspecto más peatonal. Estos trabajos han costado 26.553 euros.

## ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

2018ko Ondasun Higiezinen gaineko Zerga ordaintzeko epea ekainaren 30ean amaituko da. Larunbata denez, uztailaren 2ra arte luzatuko da epea. Helbideratutako erreziboak azken egunean kobratuko dira.

## IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

El plazo para pagar el IBI o Impuesto sobre Bienes Inmuebles finaliza el 30 de junio. Como ese día es sábado, se amplia el plazo hasta el 2 de julio. Los recibos domiciliados se cobrarán el último día.

# Gurutze auzoa eraberritzeko lanetan pauso berri bat

Behin Agauntza erreka eta Gurutzeko 1-6 dorreen arteko eremuan urbanizazioa berritzeko lanak amaituta, Gurutze 1-2 pareko plazan lur azpiko garajeak eraikitzeko eta inguru horretako urbanizazioa berritzeko proiektua eta kontratazio espedientea onartu zituen Lazkaoko Udalak maiatzeko osoko bilkuran.
2016. urtean, Gurutze auzoan lur azpiko garajeak eraikitzearen bideragarritasuna kontrastatze aldera, garajeak eraikiz gero, herritarren aldetik garaje horiek eskuratzeko egon zitekeen interesa ezagutzeko prozedura jarri zen martxan. Garajeren bat erosteko interesa adierazi zuten pertsonekin zerrenda bat osatu zen.
Une hartako erantzun positiboa ikusirik, abian ziren proiektuak idazten amaitu, eta garaje horiek eraiki ahal izateko beharrezko ziren kudeaketa lanak egin dira gerora.
Bide berean, izena eman zuten pertsona guztiekin harremanetan jartzeko saiakera egin du udalak aurten, orduko asmoak konfirmatzen ziren ziurtatzeko. Eginiko bigarren erronda honek, orduko norabidea konfirmatzeko balio izan du, eta Gurutze 1-2 gunean garajeak eraikiko balira, garaje horiek erosteko prest legoken erosle kopurua konfirmatu egin da.
Ezaguna den bezala, Gurutze 1-6 arteko urbanizazioa berritzeko lanak, batez ere, bere osotasunean batera gauzatzeak sortuko lituzkeen arazoak eta duten kostua kontutan hartuta, lau fase ezberdinetan banatu dira. Lehenengo fase bati, Gurutzeko 1-6 dorreen eta Agauntzaren arteko urbanizazioa berritzeko lanekin, amaiera eman zaio.
Orain, maiatzeko osoko bilkuran onartutako akordioarekin bigarren fase bati ekin nahi zaio, Gurutze 1-2 eremuko lanei, zehazki.

### Hurrengo pausoak

Lazkaoko Udalak lehiaketa bateratua egingo du, urbanizazio lanak egin eta garajeak eraikitzeko prest dauden enpresak aurkeztu daitezen.
- Lazkaoko Udalak, urbanizazioa berritzearen kostu guztiak ordainduko ditu.
- Garajeak eraikitzeko kostuei, aldiz, aurkezten den enpresak egin beharko die aurre. Horretarako, nahitaezkoa izango da garaje horiek saltzea.

Proiektua gauzatzeko interesik duen enpresarik aurkeztuko balitz lizitaziora, eta eskatutako baldintzak bete ondoren obrak adjudikatuko balira, garajeak erosteko interesa dutenei zuzenduta, izena emateko epea berriz irekiko litzateke. Aurrez bere interesa agertu dutenek ere, berriz eman beharko lukete izena. Kasu honetan, adjudikatutako enpresaren ardura izango da izen emate horren kudeaketa egitea.
- Izena emateko baldintzak, ordea, orain artekoak izango lirateke: Lazkaon erroldatuta egotea edo Lazkaon jarduera ekonomiko bat izatea.
- Garajeen gehienezko prezioa 21.500€ + BEZ izango da.

Obren esleipendunak horretarako duen epean, garajeen %75 salerosketa kontratu baten bidez bermatzeko aukerarik izango ez balu, hau da, erosleen eskaera ez bada kopuru horretara iristen, esleipendunak aukera izango du atzera egin eta prozesua bere horretan eteteko. Kasu honetan udalak erabaki beharko du prozesua berriro martxan jarri edo beste bideren bat hartu.
Aldiz, garajeen bideragarritasuna posible egiten duten erosle nahikoa egongo balitz, prozedurak aurrera jarraituko luke, eta hortik aurrera, zortzi hilabeteko epea izango luke garajeak eraiki eta urbanizazioa amaitu ahal izateko.
Fase honetan, Gurutze 1-2 eremuan, lurrazpiko 34 garaje eraiki ahal izango dira. Udalak aurre egin behar dien urbanizazioa berritzearen lanen lizitazio kostua, berriz, 816.635 eurokoa da.

# Un nuevo paso en la reurbanización de Gurutze

Una vez acabadas las obras de reurbanización entre el Agauntza, y los números 1 a 6 de la calle Gurutze, ahora el Ayuntamiento de Lazkao, en el Pleno del mes de mayo, aprobó el proyecto y el expediente de contratación, para construir garajes subterráneos, al par de Gurutze 1 y 2, y la reurbanización de ese entorno.
En el año 2016, con la intención de testar la viabilidad de la ejecución de garajes subterráneos en Gurutze, se puso en marcha un proceso para contrastar el interés y la demanda que pudiera existir por parte de posibles compradores de esos garajes. En este proceso se elaboró una lista con las personas que mostraron su interés.
A la vista de la respuesta positiva recibida en aquel momento, a posteriori se ha finalizado la redacción de los proyectos que estaban en marcha, y se han realizado las gestiones necesarias que permiten la construcción de los garajes.
En esta dirección, este año desde el ayuntamiento, y con la intención de volver a confirmar la existencia de ese interés, se ha tratado de contactar con todas aquellas personas que dieron su nombre. Sobre todo, en lo que se refiere a la ejecución de garajes en el entorno de Gurutze 1 y 2, se ha confirmado el número de compradores interesados.
Como es conocido, los trabajos de reurbanización del entorno de Gurutze 1 a 6, debido a la dificultad para ser ejecutados a la vez en su totalidad, con los problemas que ello acarrearía, y considerando el coste que suponen, se dividieron en cuatro fases distintas. La finalización de una de estas fases se corresponde con el final de la reurbanización del paseo del Agauntza.
Ahora, con los acuerdos adoptados en el pleno del mes de mayo, se le quiere dar inicio a una nueva fase: los trabajos del entorno de Gurutze 1 y 2.

### Próximos pasos

El ayuntamiento publicará la licitación conjunta para llevar a cabo la ejecución de los garajes subterráneos, así como la reurbanización de ese entorno, para que quien pueda estar interesado pueda presentarse.
- El ayuntamiento hará frente a todos los gastos de reurbanización.
- Los costes de ejecución de los garajes, por su parte, serán a cuenta del adjudicatario. Para ello, indudablemente, será necesaria la venta de esos garajes.

Una vez los interesados presenten sus ofertas para llevar a cabo las obras de construcción de los garajes subterráneos, y una vez cumplidas todas las condiciones, se procederá a adjudicar las obras. En ese momento se abrirá de nuevo un plazo de inscripción para poder optar a las plazas de garaje. Quienes con anterioridad ya han dado su nombre, deberán de volver a hacerlo. En ese caso, será la empresa adjudicataria la responsable de las inscripciones. Las condiciones de inscripción seguirán siendo las mismas que hasta ahora:
- Estar empadronado/a en Lazkao o tener una actividad económica en el municipio.
- El precio máximo de los garajes no podrá superar los 21.500€ + IVA.

El adjudicatario de las obras si no consiguiese en el plazo que se le establece para ello, confirmar a través de un contrato de compra-venta, al menos la venta del 75% de los garajes, podrá optar por no seguir con la ejecución del contrato. En este caso corresponderá al ayuntamiento decidir si vuelve a poner todo el procedimiento en marcha, u opta por otra vía.
En contra, si hubiese suficientes compradores de garajes como para seguir con la operación, la misma continuará, y el adjudicatario tendrá un plazo de ocho meses para ejecutar los garajes y finalizar los trabajos de reurbanización.
En esta fase, se contempla la posibilidad de construir 34 garajes. Los costes de urbanización que corresponde hacer frente al Ayuntamiento, ascienden a 816.635euros.



## SAN BENITO IKASTOLAKO KANTXA BATEN ESTALIA

San Benito ikastolako patioetako baten estalia egiteko lanak hasi dira. Estalpeak zurezko egitura izango du. Plazako estalpearen itxura izango du, hango diseinua errespetatuta diseinatu baita. Estalpea eraikitzeaz gain, jolas guneko zorua ere berritu nahi da. Esleitutako lanen aurrekontua 413.000 eurokoa da.

Estalpe berriak, ikastolak dituen beharrei, eskola kirolari, baita ere ikas orduetatik kanpora, eta herrian antolatzen diren beste ekitaldi askori erantzuna emateko ere balioko du.

## CUBRICIÓN DE UN PATIO EN LA IKASTOLA SAN BENITO

Han comenzado las obras para cubrir uno de los patios de la ikastola San Benito. Será una estructura de madera, en relación con las existentes en la plaza. Junto con la ejecución de la nueva estructura, también se piensa proceder a la mejora del suelo. Los trabajos adjudicados ascienden a 413.000 euros.

Con estas obras se persigue dar respuesta a las necesidades de espacios cubiertos que tiene la ikastola, la práctica del deporte escolar y también fuera del horario lectivo, y a las necesidades existentes en la organización de otros eventos.



## UDALETXEKO TEILATUA

Udaletxeko teilatuan, biga nagusien arteko biga txikiak huts egiten ari zirela ikusita, teilatua erori dadin ekiditeko, estruktura sendotu eta indartzeko lanak egin dira. Biga txikien funtzioa ordezkatuko duten altzairuzko egitura bidez gauzatzen ari dira lan horiek. Lan horien kostua 130.000 eurokoa izango da.

## REFUERZO DEL TEJADO EN EL AYUNTAMIENTO

Se está reforzando la estructura del tejado del edificio consistorial. Tras detectar que las viguetas existentes estaban dejando de realizar su labor, se ha procedido al refuerzo de las mismas a través de la colocación de estructuras metálicas. El coste de estas obras será de 130.000 euros.

## EUSKARA IKASTEAGATIK LAGUNTZAK

Lazkaoko Udalak diru laguntza emango die euskara ikasten ari diren herritarrei. Euskarazko eskoletara joateagatik laguntzak urriaren 31 baino lehen eskatu behar dira, udaletxean, eta beharrezkoa izango da honako baldintzak betetzea:

- Langabeek eta ikasleek matrikula kostuaren %100a jasoko dute, partidan esleitutakoa iritsiz gero.
- Jubilatuek matrikularen kostuaren %100 jasoko dute, baldin eta hilean 1.000 euro baino pentsio baxuagoa badute.
- Ikastaroa hasterako Lazkaon gutxienez urte bete edo gehiagoz erroldatuta egon behar da.
- Eskoletara gutxienez %80ko asistentzia izan behar da.
- Ikastaroa euskaltegi homologatu batean egin behar da.
- Beste inolako erakundetatik diru laguntzarik ezin da jaso.
- Lazkaon erroldatua egotea eta behin betiko izaera izatea.

## AYUDAS POR APRENDER EUSKARA

El Ayuntamiento de Lazkao otorga varias ayudas, entre ellas por aprender euskera. El plazo para la petición de las ayudas por aprender euskara finaliza el 31 de octubre. La petición se tiene que realizar en el ayuntamiento. Será imprescindible cumplir estos requisitos para obtener la ayuda:

- Los desempleados y estudiantes recibirán el 100% de los costes si alcanza lo estipulado en la partida.
- Los jubilados obtendrán el 100% del coste de la matrícula siempre y cuando la pensión que reciben no supere los 1.000 euros.
- Estar empadronado en Lazkao un año o más antes de comenzar el curso.
- Asistir por lo menos al 80% de las clases.
- No recibir otra ayuda de ninguna otra institución.
- Estar empadronado en Lazkao de forma permanente



## KIROLDEGIKO BAZKIDETZAK BERRITZEKO EPEA

Kiroldegiko bazkidetza berritu nahi dutenek, baja eman nahi dutenek, ordainketa helbideratu nahi dutenek edo bazkidetza mota aldatu nahi dutenek ekainaren 30era arteko epea izango dute. Aldaketa guztiak kiroldegian jakinarazi beharko dira. Informazio gehiago nahi duenak ere bertan eskatu dezake.
Ordainketa kontu korronte bidez helbideratuta dutenei uztailaren 2an kobratuko zaie kuota. Helbideratuta ez duten bazkideek, berriz, uztailaren 1era arteko epea izango dute ordainketa egiteko. Ordaintzerakoan kiroldegiko bazkidetza dela adierazi beharko da ordain-agirian, eta ondoren agiria kiroldegian aurkeztu beharko da.

## PLAZO DE RENOVACIÓN DE LOS BONOS DEL POLIDEPORTIVO

Los que quieran renovar, darse de baja, hacer algún cambio en los datos o cambiar los datos de domiciliación tendrán hasta el 30 de junio para realizarlo. Será imprescindible notificar todos los cambios en el polideportivo. Los que quieran más información lo podrán obtener en el polideportivo.
A los que tengan el pago domiciliado, el cobro de la cuota correspondiente se les aplicará el 2 de julio. El resto de socios tendrán hasta el 1 de julio para realizar el pago en las sucursales bancarias. Tras realizar el pago, será imprescindible mostrar en el asunto que el pago corresponde a la cuota del polideportivo y después entregar la hoja correspondiente en el polideportivo.

## GIDA BAIMENA EUSKARAZ ATEARATZEAGATIK LAGUNTZAK

Motorraren edo autoaren gida baimenaren zati teorikoa euskaraz atera duten herritarrei zuzenduta, diru laguntza onartu du Lazkaoko Udalak 2018rako ere. Gida baimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta laguntza jaso nahi duten herritarrek udaletxera joan behar dute. Gida baimena euskaraz atera dutela ziurtatu beharko dute laguntza jaso ahal izateko. Abenduaren 31ra arteko epea dago eskaerak egiteko.

## AYUDAS POR OBTENER EL CARNET DE CONDUCIR EN EUSKARA

Dirigido a los lazkaotarras que han obtenido la parte teórica del carnet de conducir de moto o coche en euskara, el Ayuntamiento de Lazkao ha aprobado una subvención para 2018. Todos los que hayan realizado la parte teórica del examen de conducir en euskara y quieran solicitar la ayuda, deberán acudir al ayuntamiento, y acreditar que han obtenido la parte teórica del carnet de conducir en euskara. El plazo para la petición de las ayudas finaliza el 31 de diciembre.

## IPARRA-HEGOA LAGUNTZAK

2018ko ekitaldiari dagokion Iparra-Hegoa lankidetza programak antolatu eta garatzeko diru laguntzak emango ditu aurten ere Lazkaoko Udalak. Ekainaren 18ra arteko epea dago eskaerak egiteko.
Eskaeraren inprimakia udaletxean aurkeztu beharko da, eskatzen duen erakundea ordezkatzeko lege-gaitasuna duen pertsonak sinatuta eta proiektu bakoitzari buruzko informazioa behar bezala beteta. Laguntzei buruzko informazio gehiago udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan eskatu ahalko da.

## AYUDAS DEL PROGRAMA NORTE-SUR

El plazo para la petición de las subvenciones para la organización y desarrollo de programas de cooperación Norte-Sur que otorga el Ayuntamiento de Lazkao finaliza el 18 de junio.
Para obtener la ayuda, será necesario presentar el impreso de solicitud en el ayuntamiento, firmado por la persona que posea capacidad legal para presentar a la entidad solicitante debidamente cumplimentada de cada proyecto presentado a subvención.

## HIRIBARREN INDUSTRIAGUNEKO LANAK

Hiribarren industrialdean, 18 eta 24 zenbakien inguruan, bide eta aparkalekuetako zorua konpontzeko lanak egin dira. Aurrez, suteen aurkako hidrantea jarri eta ur sarea berritzeko lanak ere egin dira. Guztira 43.827 euro kostatu da.

## OBRAS EN EL POLÍGONO HIRIBARREN

En el polígono industrial de Hiribarren, a la altura del nº18 a 24 se ha realizado el asfaltado del vial y los aparcamientos. Previamente se ha llevado a cabo los trabajos para instalar un hidrante y renovar la red de agua. En total han sido 43.827 euros..



## BEROGAILU SISTEMA ALDATU DA IKASTOLAN

Berogailu sistema aldatuko da San Benito Ikastolan, eta gaur egungo gasolio sistematik gasera pasako da. Horretarako kalderen aldaketaz gain, kalderak dauden geletan egungo araudira egokitzeko egin beharreko aldaketak ere egingo dira. Lan hauen aurrekontua 58.000 eurokoa izango da.

## CAMBIO DEL SISTEMA DE CALEFACCIÓN EN LA IKASTOLA

Se realizará un cambio en el sistema de calefacción de la ikastola y se pasará del sistema actual de gasóleo al sistema de gas. Para ello, se cambiarán las calderas y se habilitará el espacio de la zona a la normativa vigente. El presupuesto de los trabajos es de 58.000 euros.





### BASERRI BIDE ETA PISTETAN HOBEKUNTZAK

Senperetik Lazkaomendira doan pista eta Irutxiki eta Arramendi baserrietara doazen bideen konponketa lanak amaitu dira. Bide eta pista hauen konponketara 77.193 euro bideratu dira.

### ACTUACIONES EN PISTAS Y CAMINOS RURALES

Se han realizado los trabajos de mejora de la pista que sube de Senpere hacia Lazkaomendi, y también los caminos que van a los caseríos Irutxiki y Arramendi. El coste global de estos trabajos ha sido de 77.193 euros.



### HERRI ARGITERIAN ALDAKETAK.

Herriko gune ezberdinetan, Hiribarren, Elosegi, eta Lazkao Txiki Zelaia inguruan, kale argiteria Led sistemara aldatzeko lanak egin dira. Lan hauetara 80.367 euro bideratu dira.

### MEJORAS EN EL ALUMBRADO PÚBLICO

En distintos puntos del pueblo, Hiribarren, Elosegi y Lazkao Txiki Zelaia, se han sustituido las luminarias existentes, al sistema Led. El coste total de todas estas actuaciones ha sido de 80.367 euros.

### LAZKAOMENDIKO ERREPIDEAN FORU ALDUNDIKO LANAK

Gipuzkoako Foru Aldundia Lazkaomendira doan GI-3491 errepidean ere hobekuntza lanak egiten ari da. Gaur egun kunetarik ez zuen hainbat puntutan urak jasotzeko lanak egin eta honekin batera bidea zertxobait ere zabaltzen da. Amaitzeko, errepidearen zoruari egokitze tratamendua emango die.

### LA DIPUTACIÓN FORAL A ACOMETIDO OBRAS EN LA CARRETERA A LAZKAOMENDI

La Diputación Foral está realizando obras de mejora en la carretera GI-3491 que va a Lazkaomendi. Está ejecutando cunetas en varios puntos donde hasta ahora no existía, y con esto se consigue ensanchar la carretera en esos puntos. Para finalizar procederá a la mejora del firme.

### KIROLDEGIKO PROIEKTUA

Kiroldegiaren eraberritze prozesuaren barruan, hurrengo fase baten exekuzio proiektua idazteko lanak esleitu dira. laz eraberritze lanen oinarrizko proiektu osoa idatzi ondoren, orain beste pauso bat eman asmoz, igerileku estalia eta aldagelak eraldatzeko exekuzio proiektua idazteko lehiaketa egin, eta martxan jarri da. Lan hauen kostua 73.810 eurokoa izango da.

### PROYECTO DE REFORMA DEL POLIDEPORTIVO

En el proceso de reforma del polideportivo, tras redactar el año pasado el proyecto básico de lo que resta de reforma, ahora, se han adjudicado y dado inicio a los trabajos para redactar el proyecto de ejecución de la fase correspondiente a la reforma de la piscina cubierta y los vestuarios. La redacción de este proyecto tiene un presupuesto de 73.810euros.






# Hilaren 19an amaituko da Pausoka

# Pausoka finalizará el día 19

Ikasturte amaierarekin batera, Pausoka egitasmoa ere amaierara iritsiko da, ikasturte honi dagokionez. Datorren asteartean, ekainak 19, izango da azken eguna. Urrian hasita, asteartero egin da Pausoka egitasmoa, adinekoak lagun artean paseora irtetzea helburu duena.

Txindoki egoitzako erabiltzaileei laguntzeko boluntario lanetan aritu dira hainbat herritar, eta esperientziarekin gustura daude. Ezarri enpresara eta mojen egoitzara bisita bereziak ere egin dituzte ikasturte honetan zehar.

Hurrengo ikasturtearekin batera hasiko da berriz Pausoka, Lazkaoko Udalak, Orobionek, San Benito Ikastolak, Txindoki gerontologikoak eta Osakidetzaren herriko anbulatorioak bultzatuta. Datorren urritik aurrera berriz egongo da martxan Pausoka egitasmoa.




Junto con el final del curso escolar, también llega a su fin el proyecto Pausoka. La última salida de este curso será el próximo martes, 19 de junio. Desde que comenzó la iniciativa en octubre, que tiene como objetivo que las personas mayores salgan a pasear, se ha repetido todos los martes por la mañana.

Varios lazkaotarras han participado como voluntarios este año para ayudar a los usuarios del gerontológico Txindoki a participar en el proyecto. Además, durante este curso, los participantes de Pausoka han realizado dos visitas especiales, una a la empresa Ezarri y otra a la residencia de las monjas.

Pausoka comenzará de nuevo con el inicio del curso escolar, en octubre, impulsado por el Ayuntamiento de Lazkao, Orobione, la Ikastola San Benito, el gerontológico Txindoki y el ambulatorio municipal de Osakidetza.

LAZKAOKO UDALA

*Ondo pasa uda!*

www.lazkao.eus